

8. HEZKUNTZA SAILA	8. ÁREA DE EDUCACIÓN
8.1. IRAKASKUNTZA ARAUTUAN IRABAZI ASMORIK GABE DIHARDUTEN IKASTETXEEK EGINDAKO JARDUERA ETA PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZAK	8.1. SUBVENCIONES PARA LAS ACTIVIDADES Y PROYECTOS REALIZADOS POR CENTROS DOCENTES SIN ANIMO DE LUCRO QUE ACTUAN EN EL AMBITO DE LA ENSEÑANZA REGLADA.
1. Xedea	1. Objeto
Deialdi honen xedea hauxe da: Arrasaten irakaskuntza arautuan diharduten irabazi asmorik gabeko ikastetxeek egiten dituzten jarduerak eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.	Es objeto de la presente convocatoria es la regulación de las condiciones para la concesión de subvenciones destinadas a financiar las actividades y proyectos realizados por centros docentes sin ánimo de lucro que actúan en el ámbito de la enseñanza reglada en Arrasate.
Dirulaguntzaren xedea 2025-2026 ikasturteko jarduerak eta programak izango dira.	Serán objeto de subvención las actividades y programas del curso escolar 2025-2026.
Halaber, diruz lagunduko diren jarduerak honelakoak izan beharko dira:	Asimismo, las actividades objeto de subvención deberán tener la siguiente naturaleza:
1) Ikastetxeek egindako hezkuntza, kultura eta kirol arloko jarduerak; eskolako hezkuntza proiektuak; berritzailetzat jotzen den material didaktiko berezia.	1) Actividades educativas, culturales y deportivas realizadas por centros docentes, proyectos educativos escolares, material didáctico no habitual que se considere innovador.
2) Eskola komunitatean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta programak.	2) Actividades o programas para fomentar la utilización del euskara en la comunidad escolar.
3) Ikastetxeek hezkuntza arautuan bertsolaritza sustatzeko eginiko jarduerak, bere baitan hartuz bertsolaritza elkarteak emandako hezkuntza zerbitzuaren kostua eta baita eskolek jarduerak garatzeko erabilitako material didaktikoa ere.	3) Actividades realizadas por centros educativos para fomentar el bertsolarismo en la enseñanza reglada, que comprendan tanto el coste del servicio educativo dado por la asociación de bertsolarismo como la del material didáctico utilizado para desarrollar la actividad por las escuelas.
4) Hezkuntza zabaltzeko jarduerak edo programak, komunitatean hezkuntza garatzeko programak, eta baita garapen iraunkorarekin, hezkidetzarekin, berdintasunarekin eta bizikidetzarekin lotuta ikastetxeek lantzen dituzten eskola programak ere.	4) Actividades o programas de difusión educativa, programas de desarrollo educativo comunitario y programas escolares desarrollados por los colegios relacionados con el desarrollo sostenible, igualdad, coeducación y convivencia.
5) Irakaskuntzaren kalitatea sustatu eta eskola kudeaketa hobetzeko proiektuak edo programak.	5) Actividades o programas para fomentar la calidad de la enseñanza y para mejorar la gestión escolar.
6) Irakasleria prestatzeko jarduerak eta programak.	6) Actividades y programas de formación del profesorado.
7) Prestakuntza eta berrikuntza proiektuak, zein eskola curriculumak aberasteko proiektuak.	7) Proyectos formativos y de innovación educativa al igual que proyectos para enriquecer el curriculum escolar.
Honako jarduerak eta kontzeptu hauek ez dira diruz lagunduko:	No serán objeto de subvención las siguientes actividades o conceptos:

1) Azpiegiturako obrak eta inbertsioak egitea, ondasun higiezinak eta ekipamendua erostea (altzariak, etxetresnak, argazkigintza, informatika).	1) Propuestas que consistan en la realización de obras de infraestructura, inversiones, adquisición de inmuebles y la compra de equipamiento (mobiliario, electrodoméstico, fotográfico, informático).
2) Ikastetxeen mantentze eta funtzionamendu gastuak.	2) Los gastos de mantenimiento y funcionamiento de los colegios.
3) Irakasle titularrek jarduerak, proiektuak eta prestakuntza ikastaroak egiteko izan ditzaketen gastuak. Edozelan ere, diruz laguntzeko modukoak izango dira bai irakasle horiek ordezkatzeko gastuak bai diruz lagundu daitekeen jarduera egiteko bereziki kontratatutako langileen kostua ere, betiere jardueraren kostuaren %25eko muga proportzionaleraino.	3) Los gastos de personal del profesorado titular para realizar diferentes actividades y proyectos. No obstante, se admitirán como subvencionables tanto los gastos de personal de las sustituciones de estos profesores como el coste de personal contratado específicamente para realizar la actividad subvencionable, hasta un límite proporcional del 25% del coste de la actividad.
4) Ikasleek egindako irteera didaktikoen eta ohiko jardueren ondoriozko garraio eta egonaldi gastuak. Edozelan ere, jarduera gauzatzeko aurreikusitako diru sarrerak behin deskontatu ondoren, jardueraren kostu garbiaren %60eraino diruz laguntzea onar dezake Udalak.	4) Los gastos de transporte y estancia derivados de salidas didácticas y de actividades ordinarias del alumnado. No obstante, una vez descontados los ingresos previstos para su realización el Ayuntamiento podrá admitir subvencionar estos gastos hasta un límite del 60% del coste neto de la actividad.
5) Ikastetxearen ohiko jarduerari dagozkion material suntsikorraren gastuak eta material didaktikoa erosteko gastuak, baldin eta ez badaude diruz lagundutako proiektu jakin bati lotuta edo justifikatuta, edo ikastetxearen hezkuntza zerbitzu iraunkorraren parte direla-eta, hortaz, horretarako berariazko finantzazioa badagoela jotzen bada.	5) Gastos de material fungible correspondientes a la actividad habitual del centro al igual que gastos de adquisición de material didáctico que no estén asociados ni justificados a un proyecto específico subvencionado o que se estime son parte de un servicio educativo permanente del centro y que por lo tanto recibe financiación específica para ello.
Honako hauek, halaber, ez dira diruz lagunduko:	Igualmente, no serán subvencionables:
-Egunkari, aldizkari eta liburuen harpidetzak.	-Suscripciones de periódicos, revistas o libros.
-Ikastetxearen publizitate korporatiboaren gastuak.	-Gastos de publicidad corporativa del centro escolar.
-Hezkuntza ikastaro eta prestakuntza ikastaroetatik eratorzen diren bidaia gastuak eta irakasleriaren dietak.	-Los gastos de viaje y dietas del profesorado, derivados de los cursos formativos o educativos.
6) Diruz lagundutako jarduera nahiz proiektuak lantzean ikasleek egindako janari eta otarteko gastuak.	6) Los gastos de comida, bocadillos, realizados por el alumnado asociado a la ejecución de actividades o proyectos subvencionados.
Edozelan ere, eta jardueraren izaera kontuan hartuta, jarduera gauzatzeko aurreikusitako diru sarrerak behin deskontatu ondoren, jardueraren kostu garbiaren %50eraino diruz laguntzea onartu dezake Udalak.	No obstante, y teniendo en cuenta la naturaleza de la actividad, una vez descontados los ingresos previstos para su realización el Ayuntamiento podrá admitir subvencionar estos gastos hasta un límite del 50% del coste neto de la actividad.
7) Udalaren iritziz beste laguntza programa, programazio edo finantza lerro batzuetan hobeto egokitzen diren dirulaguntzak.	7) Aquellas subvenciones que en opinión del Ayuntamiento tengan mejor encaje en otros programas de ayuda, programaciones o líneas de financiación.

2. Ikastetxe onuradunak	2. Centros educativos beneficiarios
Irabazi asmorik gabeko ikastetxeek oinarri-arau hauek arautzen dituzten dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte, baldintza hauek betetzen badituzte:	Podrán solicitar las subvenciones que se regulan por las presentes bases específicas, los centros docentes sin ánimo de lucro que cumplan los siguientes requisitos:
a) Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeak izatea eta ikastetxe horietan aipatutako etapetako ikasleekin dirulaguntza eskaerari lotutako jarduerak, proiektuak eta abar lantzea.	a) Deberán ser centros docentes que impartan las etapas de Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria y desarrollen las actividades, proyectos etc. objeto de la solicitud de subvención con alumnos/as de las citadas etapas.
b) Ikastetxeak Arrasateko udalerrian jardutea.	b) Deberá ser un centro educativo que imparta su actividad en el término municipal de Arrasate.
c) Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek egindakoak edo haientzat eginda izan behar dira.	c) Las actividades y proyectos subvencionados deberán ser realizados por o para el alumnado de Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria
Honako hauek programa honen aplikazio eremutik kanpo geratuko dira:	Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente programa:
a) Udal titulartasuneko 0-3 urteko zikloko haur eskolako zerbitzuan dabiltzan ikasleak eta "Haurreskolak" partzuergoko ikasleak.	a) El alumnado del servicio de escuela infantil del ciclo 0-3 años de titularidad municipal, así como el alumnado del Consorcio "Haurreskolak".
b) Haur hezkuntzako ikasleak.	b) El alumnado de Educación Infantil.
3. Aurkeztu beharreko agiriak	3. Documentación a presentar
Arrasateko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak, 15. artikuluan eskatzen duenez gain, agiri hauek aurkeztu beharko dira dirulaguntza eskatzeko eredu ofizialarekin batera:	Al modelo oficial de solicitud de la subvención deberá acompañarse, además de la requerida en el artículo 15 de la Ordenanza General de Subvenciones de Arrasate, la siguiente documentación:
- Dirulaguntzaren xede den jarduerari buruzko informazio xehatua: lortu nahi diren hezkuntza helburuak, jarduera bakoitzeko diru sarreren eta gastuen banakatzea, aurreikusitako parte hartzaile kopurua eta jarduerak egiteko datak.	- Información sobre la actividad o proyecto que se solicita para la subvención detallando los objetivos educativos que se persiguen, desglose del presupuesto de ingresos y gastos por cada actividad, número previsible de participantes y fechas de la realización de la actividad del proyecto.
-Ikasturteko programa eta jardueretarako eskaeretan, onuradunak jarduera egiteko dauzkan baliabide eta azpiegiturak zerrendatu beharko ditu.	-En las solicitudes para programas y actividades del curso escolar: se deberán relacionar los medios e infraestructuras con los que cuente la persona beneficiaria para el desarrollo de la actividad.
- Ziurtagiri batean, zera jasoko da: ea dirulaguntza eskatzen den jarduerarako beste erakunde edo organismoren bati dirulaguntzarik eskatu zaion eta ea jarduera edo proiektu horretarako finantzazio espezifikoa jaso den.	- Certificado donde se haga constar si se ha solicitado subvención para esa actividad a diferentes instancias u organismos o si se ha recibido financiación específica para esas actividades o proyectos.

- Ikastetxeak ikasturterako onartu duen kuota zerrenda.	- Relación de las cuotas o mensualidades que para el curso escolar tiene aprobado el centro escolar.
4. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea	4. Unidad administrativa encargada de la tramitación
Hezkuntzako administrazio unitateak izapidetuko ditu eskaerak.	Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Educación.
5. Eskaerak baloratzeko irizpideak	5. Criterios de valoración de las solicitudes
Programa honen dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, hemen zehazten diren irizpideak aplikatuko dira:	Para calcular la cantidad correspondiente subvencionable del presente programa se aplicarán los criterios que a continuación se detallan:
5.1. Hezkuntza etapa bakoitzeko ikasleko zenbatekoa	5.1. Cantidad por alumno y alumna de cada etapa educativa
Ikasleko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, oro har, zatiketa egin behar da programa honetarako Udalak esleitu duen kopuru globalaren eta Arrasateko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen kopuru osoaren artean.	La cantidad global que el Ayuntamiento haya consignado para este programa se divide entre el número total de alumnos de los centros escolares, de las etapas de Educación Primaria y Educación Obligatoria Secundaria de Arrasate, calculándose así la cantidad subvencionable por alumno en general.
5.2. Ikastetxe bakoitzari esleituriko gehieneko dirulaguntza aurrez kalkulatzea.	5.2. Cálculo de la cantidad de subvención máxima asignada previa a cada centro docente
Ikastetxeko dirulaguntza kalkulatzeko, biderkatu egingo dira 5-1) atalean lortutako kopurua (dirulaguntzaren zenbatekoa ikasleko) eta ikastetxe bakoitzaren etapa bakoitzean dagoen ikasle kopurua; horrela, ikastetxe bakoitzarentzako gehieneko dirulaguntza kopurua kalkulatu da aurrez.	Cara al cálculo de subvención por colegio se multiplicará la cantidad obtenida en el apartado 5-1) (cantidad subvencionable por alumno) por el número de alumnos por etapa de cada colegio, calculándose así una cantidad de subvención máxima previa para cada centro docente.
5.3. Proiektuak beren nolakotasunaren arabera aukeratzeko irizpideak	5.3. Criterios de elección de los proyectos según su naturaleza
Ikastetxe bakoitzeko diru kopurua –oinarri-arau espezifiko hauen 5.2 atalean kalkulatu dena– erreferentziazat harturik, Udalak ekonomikoki baloratutako dirulaguntza eskaerak aztertuko ditu eta diruz lagundu beharreko proiektuak, jarduerak eta elementuak aukeratuko ditu, ikastetxe bakoitzari irizpide baremo bat eta hemen jasotzen den atalkako puntuazioa aplikatu ondoren:	Teniendo como referencia la cantidad económica por cada centro escolar calculada en el apartado 5.2 de las presentes bases específicas, el Ayuntamiento analizará las solicitudes de subvención valoradas económicamente y elegirá los proyectos, actividades o elementos a subvencionar, una vez aplicado, por cada centro docente, el siguiente baremo de criterios, con la puntuación que a continuación se recoge por cada apartado:
1.- Programaren edo jardueraren oihartzuna, eta udalerrriaren garapenari zer ekarpen egiten dion. Gehienez 20 puntu.	1.- La repercusión del programa o actividad y la contribución al desarrollo del municipio. Hasta un máximo de 20 puntos.
- Programaren edo jardueraren hezkuntza eta gizarte errentagarritasuna.	- Rentabilidad educativa y social del programa o de la actividad.

<p>- Programaren edo jardueraren kultur errentagarritasuna.</p>	<p>- Rentabilidad cultural del programa o de la actividad.</p>
<p>2.- Ikastetxearen beraren hezkuntza proiektu globalarekiko osagarritasuna. Gehienez 20 puntu.</p>	<p>2.- La complementariedad con respecto al proyecto educativo global del propio colegio. Hasta un máximo de 20 puntos</p>
<p>3.- Jarduerari esker, eskola komunitatearen eremu guztietan (fisikoak eta gizarte eragileak), euskara normalizatzeko egiten den sustapena. Gehienez 15 puntu.</p>	<p>3.- El fomento para la normalización del euskera en todos los ámbitos de la comunidad escolar (físicos y agentes sociales) que suponga la actividad. Hasta un máximo de 15 puntos.</p>
<p>4.- Aurkeztutako proiektuen berrikuntza eta kalitate pedagogiko nahiz teknologikoa. Gehienez 20 puntu.</p>	<p>4.- La innovación y calidad pedagógica y tecnológica de los proyectos presentados. Hasta un máximo de 20 puntos.</p>
<p>5.- Eskatzaileak beste finantzabide batzuetara jotzeko izan duen zailtasunaren egiaztapena, eta eskatu den dirulaguntzaren proportzioa, entitate eskatzailearen berezko baliabideekiko. Gehienez 25 puntu.</p>	<p>5.- Con respecto al solicitante, la dificultad acreditada por el solicitante para acudir a otros medios de financiación y la proporción de la subvención solicitada con respecto de los medios propios de la entidad solicitante. Hasta un máximo de 25 puntos.</p>
<p>Edozelan ere, programa honetan xedatzen diren laguntzak lortzeko, gutxienez 50 puntu lortu behar dute aurkezten diren proiektuek.</p>	<p>En todo caso, para la obtención de las ayudas previstas en el presente programa los proyectos presentados deberán obtener una puntuación mínima de 50 puntos.</p>
<p>Aukeratutako proiektu bakoitzetik deskontatuko dira, beren nolakotasunagatik arauditik kanpokotzat jotzen diren kontzeptuez gain, haiek finantzatzeko aurreikusten diren diru sarrerak; hori izango da, hain zuzen, dirulaguntzaren behin betiko kopurua atera aurreko kalkulua.</p>	<p>De cada proyecto elegido se descontarán, además de los conceptos que por su naturaleza se consideran fuera de la normativa, los ingresos previstos para su financiación, siendo éste un cálculo previo a la definitiva cifra de subvención.</p>
<p>5.4. Ikastetxe bakoitzari emango zaion azken diru kopurua kalkulatzea</p>	<p>5.4. Cálculo de la cantidad final de subvención concedida a cada centro escolar</p>
<p>Kontuan izanik proiektuen baremazioaren puntuazioa (5-3), haien nolakotasuna eta dirulaguntzak emateko oinarri-arauetan jasotako irizpideak (1-6), Udalak proiektu bakoitzeko proposamen bana egingo du bai portzentajeari bai diru kopuruari dagokionez, betiere kontuan hartuz deialdi honetan 5-2 eta 5-5 artikuluetan ezartzen diren laguntza mugak.</p>	<p>Teniendo en cuenta las puntuaciones de la baremación de los proyectos (5-3), su naturaleza y los criterios de subvención recogidos en las bases reguladoras de la concesión de subvenciones (1-6) el Ayuntamiento realizará una propuesta por cada proyecto tanto en porcentaje como en cantidad, siempre teniendo en cuenta el límite de ayuda establecido en el artículo 5-2 y 5-5 de la presente convocatoria</p>
<p>Ikastetxe bakoitzari emango zaion azken diru kopurua 5-2 atalean onarturiko aurre kalkuluko kopurua baino txikiagoa izan daiteke, ikastetxeek aurkeztutako proiektuak aztertu eta baloratutakoan, Udalak hala proposatzen eta egoki ikusten badu.</p>	<p>La suma final de subvención concedida a cada centro podrá ser inferior a la cantidad máxima previamente asignada para cada colegio en el apartado 5-2, si así lo propone y estima oportuna el Ayuntamiento al analizar y valorar los proyectos presentados.</p>

Proiektu bakoitzeko onarturiko kopuruen batura, ikastetxe bakoitzari emango zaion azken zenbatekoa izango da.	La suma de las cantidades aceptadas por cada proyecto será la cantidad final concedida de subvención a cada colegio.
5.5. Gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa	5.5. Importe máximo de subvención
Oro har, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ez du jardueraren kostu garbiaren %75 gaindituko.	Con carácter general, el importe máximo de la subvención no superará el 75% del coste neto de la actividad.
5.6. Ikastetxe bakoitzari emandako dirulaguntzari (5-4) gehituko zaio bertsolaritza proiektuaren zerbitzuaren kosteari emandako dirulaguntza	5.6. A la cantidad final de subvención concedida a cada centro escolar (5-4) se le añadirá la subvención concedida al coste del servicio del proyecto de bertsolarismo.
2019-10-31n TGBk onarturiko akordioari jarraituz, 2019-2020 ikasturtetik aurrera ikastetxe bakoitzari emandako dirulaguntzari gehituko zaio ikastetxeek ikasturtero finantzatzeko duten "Gu ere bertsotan" zerbitzuaren kostuarekiko dagokien dirulaguntza (gehienez %75).	Tal como aprobó la CGL de 31-10-2019 a partir del curso 2019-2020 a la cantidad final concedida en principio a cada colegio se le añadirá la cantidad correspondiente de subvención (máximo 75%) referente al coste del servicio de la actividad "Gu ere bertsotan" que financiaran cada curso los colegios que trabajen esta actividad.
Diruz lagundutako jarduera hau jasoko da proiektu guztiak bezala, modu bateratuan, zerbitzuaren kostua eta erabilitako material didaktikoa batera islatuz.	La actividad subvencionada se recogerá como con todos los proyectos de un modo conjunto reflejando tanto el coste del servicio como el del material didáctico utilizado.
5.7. Proiektuak baloratu, baremazioa egin, hautatu, diru kopurua esleitu eta likidazioa egiteaz arduratuko den batzordea	5.7. Comisión encargada de proponer la valoración, baremación, elección y asignación de cantidades de los proyectos y liquidación
Udalaren Hezkuntzako informazio batzordea arduratuko da dirulaguntzetarako aurkeztutako proiektuen balorazioaz, baremazioaz, hautaketaz, portzentajeen zein kopuruen esleipenaz eta baita ikastetxe bakoitzari ematea proposatuko den azken kopuruaz ere. Horretarako araudi honetan jasotako oinarriak aplikatuko ditu. Batzordearen ardura izango da, halaber, dirulaguntzaren azken kitapena proposatzea, ikastetxeek aurkezturiko justifikazioak aztertuta.	La comisión informativa de Educación del Ayuntamiento será la encargada de proponer la valoración, baremación, elección y asignación de porcentajes y cantidades de los proyectos presentados por los colegios para la subvención y la cantidad final concedida a cada colegio, aplicando para ello las bases recogidas en este reglamento. La liquidación final de la subvención analizando las justificaciones presentadas también serán a propuesta de la Comisión.
6. Aurrekontua	6. Presupuesto
Programa honen bidez deitutako diru laguntzen zenbatekoa 167.350 €-koa da (144.350 € hiru onuradun ikastetxeen proiektuentzat eta 23.000 € bi ikastetxek garatzen duten bertsolaritza proiektuarentzat) eta "1.0900.481.323.00.00 – Hezkuntzako dirulaguntzak" kontu sailaren kontura finantzatzeko da.	El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 167.350 €, (144.350 € para los proyectos de los 3 colegios beneficiarios y 23.000 € para el proyecto de bertsolarismo de 2 colegios) y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.0900.481.323.00.00-Subvenciones Educación".

<p>Aurrekontu kopurua ez bada nahikoa eskaera guztiei erantzuteko aurreko balorazio irizpideen arabera, aplikatuko da dagokion hainbatekoa, emandako guztiari dagokiona.</p>	<p>Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de las solicitudes según los criterios de valoración, se aplicará el prorrateo correspondiente al total de la concesión.</p>
<p>7. Justifikatzeko epea eta moduak</p>	<p>7. Plazo y formas de justificación</p>
<p>Arrasateko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak, 61. artikuluan xedatzen duenez gain, jardueraren garapenaren ondorioz sortutako dokumentu guztien ale bana aurkeztu beharko da; baita jardueraren bidez lortu nahi ziren helburuen betetze mailari buruzko balorazioa ere.</p>	<p>Además de lo dispuesto en el artículo 61 de la Ordenanza General de Subvenciones de Arrasate, se deberá presentar, asimismo, un ejemplar de toda la documentación producida con motivo del desarrollo de la actividad, así como una valoración respecto del grado de ejecución de los objetivos perseguidos con la misma.</p>
<p>Ikastetxe publikoen ezaugarriak kontuan izanik, zeinak juridikoki Eusko Jauriaritzarenak baitira, horientzat ez da beharrezkoa izango Arrasateko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 61.2.a) artikuluan eskatzen diren finantza egoera ikuskatuak entregatzea.</p>	<p>Dadas las características de los centros docentes públicos, pertenecientes jurídicamente al Gobierno Vasco, no será necesario que estos hagan entrega de los estados financieros auditados exigido en el artículo 61.2.a) de la Ordenanza General de Subvenciones de Arrasate.</p>
<p>Entitatearen jardura globalaren nahiz diruz lagundutako jardueren memoria, non gastuak eta diru sarrerak adieraziko diren.</p>	<p>Memoria tanto de la actividad global de la entidad como de las actividades subvencionadas con indicación de los gastos e ingresos habidos.</p>
<p>Oro har, jardueren justifikazioa ikasturtearekin lotuta egon beharko da. Eta jardura edo proiektu bakoitzaren diru sarrerak jatorrizko dokumentuen bidez justifikatu beharko dira.</p>	<p>Con carácter general, la justificación de las actividades estará relacionada con el curso escolar. Y los ingresos de cada actividad o proyecto subvencionado deberán ser justificados por documentos originales.</p>
<p>8. Klausula gehigarria</p>	<p>8. Cláusula adicional</p>
<p>Deialdi honetan jasotzen ez diren gai guztietan Arrasateko udalaren dirulaguntzak ematea eta kudeatzea arautzen duen ordenantzan ezarritakoa izango da aplikagarria, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu duen erregelamendu eta bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa.</p>	<p>En todo lo no recogido expresamente en la convocatoria, se estará a lo dispuesto en la ordenanza reguladora de concesión y gestión de subvenciones del ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, que aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.</p>